

## Jaiak • Antzuola

## EGITARAUA



IRATI AGIRREAZALDEGI

Antzuolako abesbatzak 'Salbea' kantatuko du festei hasiera emateko.

# Jaien hasiera Salbe doinuen esanera

## Alfonso Ugarte herritarraren 'Salbea' abestuko du abesbatzak elizan

Irati Agirreazaldegia | ANTZUOLA

Udalbatzako kideek, Oinarin dantza taldekoen laguntzaz, urtero legez aureskua dantzatzuz emango diete jaiari hasiera ofiziala. Batzuek dantzan eta beste batzuek kantuz ekingo diete festei. Herriko abesbatzak parrokiakoarekin batera, meza nagusiaren ostean, *Salbea* abestuko du.

Urteroko kontua edo ohitura da *Salbea* kantatzea; aurten, ordea, izango da aldaketarik. Azken bi urteetan Jose Arrueren *Salbea* eskaini diete herritarrei, baina aurtengorako Alfonso Ugarterena aukeratu dute. Aspaldiko urteetan Arrueren *Salbea* kantatzen omen zen, eta ahaztuta, albo batera laga ostean, orain dela bi urte berriz ere hura hartu zuten jaietan abesteko. Jendeak atseginez hartu omen zuen aldaketa, edonork baitu gustuko ohiturak berreskuratzea.

Bi urte igaro dira, eta berriz ere aldaketa etorri denerako

## GAUR

**10:30:** Ume guztientzako jolasak izango dira herriko udaleku irekietako begiraleek antolatuturik.

**13:30:** Jolasak amaitu ostean, umeen herri bazkaria.

**16:30:** Elbi bentrilokuaren emanaldia Herriko plazan.

**18:00:** Jaien hasiera iragartzeko txupinazoa eta kanpaiak. Jarraian, herriko txistularien kalejira buruhandiek lagunduta.

**19:30:** *Salbea*. Antzuolako abesbatzak Alfonso Ugarteren *Salbea* kantatuko du.

**20:15:** Oinarineko umeekin ikurrin dantza. Jarraian, Antzuolako bandera eta ikurrina jasotzea. Udalbatzaren aureskua, Oinarinek lagunduta.

**22:30:** Muganix musika taldearekin dantzaldia plazan.

**00:00:** Zezen suzkoa plazan.

**00:30:** Muganix musika taldearekin dantzaldia plazan.

egongo da arrazoirik. Arrazoi horren bila koruko zuzendari Patxi Azkaraterengana jo dugu eta hark zera azpimarratu digu: «*Salbea*-ri indarra eman nahi genion. Ni txikia nintzela *Salbea* sakratua zen, oso garrantzitsua. Aurten abestu behar dugun hau bera ere orain dela 40 urte kantatzen zen Antzuolan. Pixkanaka galtzen joan da, eta azken urteotan poliki-poliki berreskuratzen saiatu gara. Gainera, aurtengorako Alfonso Ugarteren *Salbea* aukeratu dugu bere izena ezagutzera emateko, izan ere, Antzuolako semea da Ugarte».

## Antzuolako abesbatza

Emakumezko eta gizonezkoek bat eginda 40 lagun inguruk osatzen dute Antzuolako abes-

batza, eta herrian bertan eskaintzen dituzte beren emanaldiak. Jaietan kantatzeaz gain, herriko auzoetan, jaiak egokitzen direnean, abestera joan ohi dira korukoak: San Martzialera, Uzarragara, Antiguara... Baina guztia ez da kantua eta obligazioa izaten, eta Patxi sekretutxo bat ere kontatu digu: «Kantatzen dugun lekuan beti emanaldiaren ostean bazkaritxoren bat edo egiten dugu, eta gero lagun giroan juergatxoa egin. Urtean behin abesbatza kantatzen dugunok irteera bat ere egiten dugu, guztia ez baita kantatzea, eta abestuz ongi pasatzen badugu ere, dibertitzea gustatzen zaigu».

## Mairuaren Alarde ospetsuan ere kantari

*Salbea* gaur, osteguna, arratsaldeko 19:30ean izango da. Baina Antzuolako jaietako ikuskizun esanguratsua den Mairuaren Alardean ere izango du lekurik abesbatzak. Iparragirreraren bertsoak kantatuko dituzte bertan. «Orain artean gizonezkoak bakarrik abestu izan dugu Alardean, eta azken urteetan emakumeak ere sartu dira. Baina zailantza daukagu berriz ere gizonezkoak bakarrik ez ote dugun kantatau behar. Izan ere martxa doinua denez, indar gehiagorekin abesten dugula esan digu jendeak, eta horrela hobeto ematen omen du belarria».

Beraz, musika koral gustuko duenak izango du, ez bairik gabe, belarriak gozatzeko aukera.

Doitasunezko trokelak

TROKELAY, S.A.

ELAY Taldea

Ebaketa zehatza

ELAY INDUSTRIAL, S.A.  
CELAY, S.A. de C.V.

Zerbitzuak


ELAY, S.L.

Gainmoldaketa eta Tratamenduak

SEYTRA, S.A.  
CELAY, S.A. de C.V.

balzers

## BALINIT Estaldura estragorrrak



BALZERS-ELAY, S.A.

Antigua 2

20577 Antzuola – Gipuzkoa

Tel.: 943 76 62 08

Fax: 943 76 62 31